Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Elisabet Agirrezabal Arrese*

*Bergara, Gipuzkoa*
*(1919-2018)*



Aurkibidea

## Biografia



San Antonio auzoan jaio zen, sei anai-arrebatatik gazteena. Gurasoak ere bergararrak zituen. Mojetan ikasi zuen sei urtetik hamabostera bitartean. Gerra denboran, Bergaran bonbardaketak zirenean, Antzuolan gordetzen ziren. Elisabeten ahizpa bi gogor zigortu zituzten EAJko emakumeen batzordeko kideak izateagatik. 19 urterekin, Elisabet Aretxabaletako “Industrias Beroa” lantegiko bulegoan hasi zen lanean, Espainiako armadarentzako sukaldeko mahairako tresneria egiten, besteak beste. Bere mobylette motorrean zihoala, istripu larria izan zuen. Geroago autoa erosi ahal izan zuen. Enpresako idazkaria zela, Donostiara eraman zuten lanera, eta han bost urte pasatu ondoren Bergarara itzuli zen, “Bergara Textil” lantegiko enpresa-kudeatzaile bezala. San Antonio auzoa garai batean nolakoa zen azaltzen du. Elisabeteren iloba Luis ere egon zen lehenengo elkarrizketan.

## Zintak

### BER-304

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2011-01-10
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

### BER-305

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2011-01-10
- **Iraupena**: 31 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

### BER-326

- **Proiektua**: Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2013-01-28
- **Iraupena**: 68 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

### BER-327

- **Proiektua**: Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2013-01-28
- **Iraupena**: 33 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

## Pasarteak

### 1. Hiru urte zituela, ama hil zitzaien

- **Erref**: BER-326/003
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:00:34. **Bukatu**: 00:02:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak

**Laburpena**:
Ez zuen ama ezagutu; hiru urte zituenean hil zen. Ezkontzako erretratua badauka. Aita epaitegiko idazkaria zen. Zazpi anai-arrebatatik bi gaztetan hil ziren. Lau neska ziren. Ahizpek egiten zuten amaren lana. Amaren azken borondatea senarra ez berriz ezkontzea izan zen; amaorderik ez emateko eskatu ei zion. Ahizpa zaharrenak 30 bat urte zituen ordurako.

**Transkripzioa**
- Ta zure gurasuak nunguak zian?
- Ama ez neban ezautu, hiru urte neukala hil zan. Oso txikixa. Haren kontuak esaten zosten aiztak, ni ez nintzan gogoratzen ya berakin. Akordatzen naiz beran ohe gaiñian ibiltzen nitzala jolasian muñekiakin-eta, baiña ez naiz gogoratzen berakin, ez. A! Ta erretratua daukat —gero erakutsiko dotsuet— bixena, aittana eta amana, ezkondu zienekua. Bai, gero erakutsiko dotsuet /erakutsikotzuet/.
- Ama Bergarakua zan?
- Ez dakit, aitta bai. Aittak in zeban, Elusutik ekarri zebenian ura, berak dirijidu zeban, bera zeuan sekretarixo juzgauan. Eta anaia... berakin lan eitten zeban juzgauan, bixak.
- Eta zuek zenbat anai-arreba ziñaten?
- Zazpi, baiña nik ezautu in nittun bost bakarrik, e. Bixak gaztetan hil zien, beste bixak.
- Eta zenbat neska?
- Ba neskak lau.
- Orduan, bostetik lau neska?
- Bai. Mutil bat bakarrik, Migel, juzgauan lana in zebana, Migel.

- Orduan, ama barek ahizpa zaharrenak...
- Zaharrenakin... Aiztak geldittu ziren aman lana eitten. Ta aittak esan zotsen, gaiñera, aiztak kontauta neri, hiltzerakuan esan zotsala: “Antonino, alabak edadekuak dauzkazu ta ez ezkondu berriz, e! umiei ez emon madrastraik”. Pentsaizu, zelako... [zerekin gogoratu zan]... neri madrastraik ez emoteko, alabak bazeuzkala hazixak eta harek zainduko zebela. Ta holaxe izan zan e, bai, holaxe.
- Eta zenbat urte zeuzkan alaba zaharrenak ama hil zanian?
- Hombre, nik ez dakit, nik neukan hiru urte, ba, berak eukiko zittuan hogeta hamar edo hogeta hamabi, ez dakitt. Bai, edadetua bera ya.
- Aaa... orduan diferentzia haundixa.
- Haundixa, bai. Zaharrenakin bai, haundixa, bai.
- Orduan, zuretako bigarren ama izan zan.
- Ama, nere aiztak izan zien ama neretako, bai. Erak [...] zosten. Gaiztokerixak eitten nittuanian, harek... astindu harek.

## 2. Umetan Sor Eufemiarekin eskolan

- **Erref**: BER-326/004
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:02:48. **Bukatu**: 00:04:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Umetan ez zuen etxeko lanik egiten; denek zaindu egiten zuten. Felisa ahizpa Bilbora ezkondu zen. Mimatu egiten zuten, baina errieta ere egiten zioten. Umetan Sor Eufemiarekin ibili zen eskolan. Gero Enseñanzan.

## 3. Enseñanzako ikasketak "mediapensionista" moduan eta lehenengo lana

- **Erref**: BER-326/005
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
<p>Enseñanzan ibili zen, mojetan. Oso bizkorra zela esan zioten bere aitari. Takigrafia eta mekanografia ikasi zituen. Azterketa egin zuen, eta baita lana lortu ere. 19 urterekin. Motoan joaten zen lanera. "Mediapensionista" zen mojetan; aparteko eskolak ordainduta jasotzen zituzten. Interna asko kanpotarrak ziren (madrildarrak...); haiek bazuten batxilerra ikasteko aukera, baina beraiek ez. Ikasgai solteak hartu behar zituzten, ikasketak osatzeko. Frantsesa ere ikasi zuen, baina gutxi. Horretarako Frantziara joan behar zen. Oso gutxi joaten ziren. Mutilek aukera gehiago zuten. Aretxabaletan Bergarako zazpi neskak egin zuten azterketa. Denak kolokatu ziren inguruko herrietako

lantegietan (Oñatiko Forjas de Zubillagan, Arrasateko Industrias Asan eta Eskoriatzan), baina postu hori berak lortu zuen.</p>

**Transkripzioa**

- Eta gero ya Enseñanzan, mojetan.
- Gero mojetan, bai.
- Ta hor...
- Hortik abixau zotsen aittai zeozen eskolia emuteko, zeaittik denporia galtzen egoten nitzala bestiekin, enredau bestiekin. Ta gero... Aurretik hartzen nittuan, leziñuak bixkor hartzen nittuan, ta gero denporia pasau bihar neban zelabaitt han bestiak enredauta. Gero "taquigrafía y mecanografía", gehixen neri balio izan dostena da takigrafixia e. Zeaittik [gero] han egon zienian examiñak, zazpi lagun juan giñan, ta handik etorri nintzanian examiña indda, aittak esan zostan “ta zela, Elisabet”, ta “Bihartik lanera noia, aitta”. Hurrengo egunerako ya diar in zosten juateko lanera, bai. Gaztetan, han hasi nintzan, hemeretzi urtekin e, lanian. Ta orduan diruik es neukan, ta motorra.
- Ta, Enseñazan egoten zan e... mediapensionista...
- Mediapensionista, mediapensionista, bai. Zeuan [...], gero mediopensionistak eta bestiak kolejialak, barruan zerenak. Baiña gu mediapensionista egon giñan, bai. Gu juaten giñen eguerdiarte ta gero bazkaltzera etxera. Ta gero atsaldian atzera lanera, eskolara, bai. Ta bestiak zerenak, ya, kolejialak, barruan gelditzen zien. Handik, kanpotik etorrittakuak zien asko e, Madril aldetik eta... asko zeren, bai. Eske bo, mojetakua izan da... seminaixua izan zan moduan, seminaixuan gizakumiak eta mojetan emakumiak, bai.
- Ta, diferentzia haundixa zeuan interna egon ala mediapensionista egon?
- Bai, bai, bai, bai. Eske mediopensionista egonda, aparteko eskolak emun bihar ziñuzen ordaindduta. Ta barruan zerenian ya pensiño bat pagauta ya barruan zeren, bai. Diferenzia haundixa ya erakusten be bai e, bai.
- Esaten dabe batxillerra ikasteko interna zerenei bakarrik erakusten zotsela, bestiei ez.
- Karo, bestiei ez. Ez zoskuen emuten, ez. Guk horretxeatik hartzen giñuen “asignaturas sueltas” esaten zebena, zeoze.
- Aparte.
- Aparte, aparte pagauta, bai. Frantsesa be ikasi neban, baiña aztu jat.
- Hantxe bertan, aparte, orduan, klase partikularrak hartzen zenduzen?
- Bai, klase partikularrak, bai. Denporia galtzen neban ta, aittai abixau zotsen, honi beste zeoze emuixozu, e, zeatik denporia galtzen dau ta bestiei galdu eraitten.
- Orduan ikasi ziñuan "Taquigrafía y..."?
- "Taquigrafía y mecanografía", bai.
- Eta frantsesa be bai.
- Eta fransesa, fransesa gutxi. Hortarako, frantsesa ikasteko ondo, Franziara juan bihar zan, ta gurian aittak hori ez zeban nahi. Kanpora ez, txikixena etxian. Haundixak eztakit zela egongo zien, baiña ni, txikixa, etxian, bai.
- Garai horretan ez zan...
- Ez, ez, kanpora juatia keba, kanpora gutxi juaten zien.
- Ta neskak gutxiau?
- Honbre! Gizakumiak beti euki dabe eskubide gehixau guk baiñok.
- Esan dozu Aretxabaletara jun ziñanian prueba hori ittera zazpi jun ziñatela...
- Zazpi lagun.
- Ta danak neskak?

- Neskak. Danok neskak, bai.
- Bergarakuak danak?
- Danak Bergarakuak. Ta gero batzuk kolokau zien Zubillan, “Forjas de Zubillaga”, beste batzuk Mondraon, “Industrias Asan”, eta ni Aretxabaletan. Ta beste batzuk Eskoriatzara be juan zien e. Ni Aretxabaletan, erdizpurdiz.

## 4. Frantziara joatea, frantsesa ikastera

- **Erref**: BER-326/006
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
Legorburutarrak Frantziara joan ziren, baina berari aitak ez zion utzi; Kontxita Saizar era joan zen. Familia aberats samarrak ziren. Urte guztirako joaten ziren, ikastetxe batera.

**Transkripzioa**
- Batenbat ezagutu ziñuan Bergarako…?
- Kontxi, Kontxi...
- Ez barkatu, neskan bat frantsesa ikastera Frantziara jundakoik edo?
- Nerekin zerenak, batzuk , juan zien.
- Bai, e?
- Bai.
- Zein, e, baten bat izen…?
- Legorburutarrak juan zien.
- Legorburu?
- Bai ,e, Legorburutarrak juan zien Franziara. Neri aittak ez zostan laga ta hamen geldittu nitzen. Ama barik zelan nenguan, ba aittak esandakua itten zan.
- Eta Legorburatarrak eta besteik badaukazu goguan?
- Ez.
- Ez.
- Kontxita Saizar ta horrek be bai, Kontxita Saizar ta horrek be juan zian, bai. Horrek ya danak hildda dare.
- Eta ze izaten zan, hola, Frantziara bialtzeko ikastera familixak dirudunak ala…?
- Dirudunak, puxkat zeukenak, bai, puxkaat zeukenak. Gitxikin ezin zan juan. Ta gu, gu gutxikuak izango giñan ta hemen geldittu giñan.
- Joaten zien… udan joaten zien udia pasatzera edo…?
- Ez, ez, urte guztia, urte guztia, bai, bai, bai, ez ez gin…,
- Kolejixora ?
- Kolejixora, kolejixora.
- Bai, hori ez zan merkia izango!
- Ez, ez, honbre, asko bihar zan. Bai…

## 5. Karrera egitea neska gutxiren esku

- **Erref**: BER-326/007
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:10:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Bere inguruko inork ez zuen karrera ikasi; denek irakasgai solteak. Aretxabaletan lanean hasi zenean takigrafia primeran etorri zitzaion; lantegiko nagusiak Mexikon zuen negozio bat, eta berak hartzen zituen deiak. Interna zeudenek bai, batzuek Magisteritza ikasi zuten. Burgosera edo Salamancara joaten ziren azterketa egitera. Maria Pilar Lonarbide. Titulu gabekoa maistrak ere baziren. Maria Victoria Oiarzabal izan zen karrera egiten lehena. Horretarako diru asko behar zen. Gainera, ez zieten garrantzirik ematen emakumeen ikasketei. Josten ikastea zen inportanteena.

**Transkripzioa**
- Ta zurekin ikasittakuak edo zure edadekuak batenbat karreria in zebana edo..?
- Ez [zauan] iñobez. Iñok be ez. Danak asignatura sueltuak ein giñuzen: batzuk francesa, beste batzuk mekanografixia bakarrik, bestiak takigrafia ta mekanografa. Nik... takigrafia gehixen gustau jatan e. Bueno, haretxek balio izan zostan, zeatik esamiñak euki giñuzenian, [oneis] nere nausixak, Aretxabaletakuak, zeuken beste anai bat industriakin Mejikon, eta, klaro, handik [itten] zebenian, nik aurikularrak ipiñi ta takigrafixan. Ta gero tradukziñua emun. Eta horretxek balio izan zostan. Ta gero aittak galdetu zostanian “Zela esamiña Elisabet?”, “Bihar lanera noia, aitta”, “Ez dozu esango?!” ta “Bai, bai, bihartik lanera noia”.
- Eta esan dozu asignatura sueltuak eta hola.
- Bai.
- Baiña bazeren batzuk magisterio ikasten zebenak.
- Bertan ez.
- Kanpora junda.
- Barruan, barruan zerenak. Hori ya... kolegixo barruan zerenak bai, harek in zeben e.
- Internak.
- Magisterio, bai. Interna zerenak bai.
- Baiña magisterio hemen Bergaran ez zan posible izango ittia.
- Baiña gero esaminatzera juten zien o Burgosera edo Salamancara edo... baiña hemen estudixauta e, bai.
- Eta zeintzuk e... batenbat badaukazu hola akorduan?
- Nik daukat bat hor mojetan eon zana, gerra denboran gaiñera barruan eon zan, este... Maria Pilar Oiarbide.
- Lonarbide.
- Lonarbide, bai. Hori... horrek dauka ya magisterixua indda. Ta bere alabak danak dare magisterixua itten; bueno, eindda, lanian dare ya.
- Bestela, garai hartan asko egongo zien maistrak titulo barekuak, ezta?
- Titulo baekuak, klaro. Puxkat espabiladak zienak... grupua hartu ta erak erakutsi.
- Ta esaten dabe karreria in zeban lenengua... Farmazia ikasi zebala ta zala e... Don Roman... alabia.

- A! Honbre, Maria Vitoria, Maria Vitoria Oiarzabal. Honbreee! Haura oso majia zan e! Ta, gaiñera listia, oso listia.
- Baiña, klaro, karreria ittera hola kanpora jutia…
- Kanpora, karo, baiña egon in bihar zan, oin daon moduan. Oingo moduko krisisik ez zeuan e!
- Eta aparte be bai, ez zotsen holako inportantziaik emuten ezta emakumiak ikastia…?
- Keba, keba, emakumiak etxerako, josten eta holaxe bakarrik. Ba “costureras”,”costureras”.

## 6. Neskak 14 urterekin lanean; ehun lantegiak

- **Erref**: BER-326/008
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:10:56. **Bukatu**: 00:12:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

**Laburpena**:
Neskak 14 urterekin hasten ziren lanean. Gezurra esaten zuten, berez 15 eduki behar zirelako. Algodoneran mordoa hasten ziren. Zazpi ehun lantegi zeuden, eta denak desagertu ziren pixkanaka. Bergara Textil eta Bizente Aranzabalena (Aranzabal, Mendiola y Compañia) izan ziren azkenak jausten. Ezin zuten Txinarekin lehiatu. Siderurgian bezala irabazteko greba egin zuten langileek, baina ezin zieten berdina eman.

**Transkripzioa**
- Emakumiak zenbat urtekin hasten zian lanian?
- Gazterik, neu be hemeretzi urtekin hasi nitzan. Orduan hamalau urtekin, gizurra esanda, gaiñera, fabrikara juan ta hamabost urte zeuzkela, zeaittik hamabost urtera arte ez zeben lagatzen hasten. Esaten zeben hamabost zeuzkela, baiña gero dokumentua erakutsittakuan, tranpia! Baiña tranpiakin asko hasi zien; hamalau urtekin-eta, bai, asko, asko. Hemen Algodoneran-ta mordua emakumiak, bai.
- Gaiñera, sasoi horretan textillak asko, ezta?
- Textillak danak. Hemen zazpi genden e! Eta juan giñan… kartak ipintzen die ba? ta putz ein ta jausten dien moduan, holaxe, banan-banan-banan. Gu azkenak izan giñen jausten. Guria Bergara Textil zan eta bestia Aranzabal, Vicente Aranzabal Mendiola. Bai, bai, Aranzabal Mendiola y compañía. Gu azkenak izan giñan jausten, baiña gu be jausi. Ezin zeikien konpetidu, zeatik Txinatik-ta hasi zien ekartzen telia oso merke. Karo, han jornalik ez zeben pagatzen eta hemen jornala pagau bihar zan. Honbre, gurian zenbat... huelgia in zan bakarrik, nahi zeben jornala siderometalurgiakuen moduan. Eta ezin zeikian. Harek irabazi eitten zeben, harek lan asko zeuken. Honek, Altos Hornos ta honek. Ta guk ez, textillak, ba, ezebez.

## 7. Bergara Textil; Bergarako ehun lantegiak

- **Erref**: BER-326/009

- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:12:13. **Bukatu**: 00:13:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

**Laburpena**:
Bergara Textileko lanak: kotoia matazetan ekartzen zuten, eta prozesu osoa egin, baita tindatu ere. Ehun lantegiak: Otazua, Movilla, Felipe Setien... Beraiek Azkoititik ekartzen zuten kotoia (Epelde y Larrañaga). Confecciones Vascas jarri zuten, eta tela Santa Agedara eramaten zuten, bertan josteko. Berak eramaten zuen tela, autoan.

**Transkripzioa**
- Bueno, guk ekartzen giñuan algodoia matazetan eta itten giñuan harixa eta gero harixakin telia, Eta gero tintau be bai. Dana fabrikan itten giñuan, e, Bergarako textillian itten zan dana, prozeso dana.
- Esan dozu zazpi ziñatela.
- Bai.
- Bergara textil, Aranzabal, Algodoneria, Mobillas...
- Otazua, Otazua, Felipe Setien ta mordua, zazpi bai gutxienetik. Guk algodoia ekartzen giñuan Azkoittittik, Epelde y Larrañaga. Harek matazak ekartzen zien. Gero harixa ein tejedurixan eta gero telia in, ta gero tintau. Dana, guk prozeso dana itten giñuan e. Bai. Ta gero ba onduan ipini giñuan Confecciones Vascas, geure fabrikiak onduan. Geuria zan. Bueno, bertakua zan. Eta [hor] lan itten zoskuen Santa Agedan. Eruaten giñuan telia ebagitta ya patroiekin eta gero han josi itten zeben Santa Agedan. Nik biaje asko in dittut Santa Agedara kotxia beteta. Bai.

## 8. Industrias Beroan lanean

- **Erref**: BER-326/011
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:13:19. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

**Laburpena**:
19 urterekin hasi zen Industrias Beroan lanean, Aretxabaletan. Gerra orduantxe bukatu zen. Suitzatik aluminioa ekarri eta urtu egiten zuten; armadarentzat platerak eta edalontziak egiten zituzten; gero ere bai, textilean armadarentzat egiten zuten tela asko.

**Transkripzioa**
- Bueltauko ga zu lanian hasi ziñan garaira.
- Bai.
- Ez? Hemeretzi urtekin...
- Hemeretzi urtekin. Hogei urte neuzkan, hemeretzi kunplidu ta, hogei

kunplitzeke. `Industrias Beroa´, Aretxabaletan, `Industrias Beroa´. Haura zan aluminozkua dana eta ekartzen zeben lingotia Suizatik eta han itten zien fundidu eta gero itten zien ejerzitorako platerak, kantinplorak eta basuak, eta horrexek lanak. Eta hemen `Bergara Textil´en geldittu giñanian be, hemen be itten zan ejerzitorako telia asko, mahoia. Bai.
- Artian gerria bizirik egongo zan, ezta?
- Orduan bukatuta, orduaintxe hiru urte bukatuta.
- Baiña Debara juan ziñanian, artian...
- Orduaintxe. Treinta... bai, treinta y nuevian hasi nintzan eta treinta y seisian hasi zan gerria, hiru urte, […], orduaintxe bukatuta.
- Bai, bai.
- Bai.

## 9. Ahizpetako bat zigortua, batzokian ibiltzeagatik

- **Erref**: BER-326/013
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:14:23. **Bukatu**: 00:17:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

**Laburpena**:
Bere ahizpak batzokian ibiltzen ziren gerra aurretik. Han aurkitutako zerrenda bat zela eta, zigortu egin zituzten. Afiliatuak ziren, eta bietako bat, Rosario, zuzendaritzakoa. Horregatik zigortu zuten, soldaduen arropa zikina garbitzera. Errepublika garaian bera ere joaten zen batzokira, festaren bat zegoen aldiro. Idazmakina eta irratia kendu zieten. Monzongo etxean errekisatutako gauzak zeuden, eta aitari handik nahi zuena hartzeko esan zioten gero. Ez zuen ezer hartu. Ez zituzten beraien gauzak berreskuratu. Isuna ere jarri zieten. Bi ahizpak Emakume Abertzale Batzan zeuden, eta zaharrena juntan. Salatariak familiakoak izan zirela esan zieten.

**Transkripzioa**
- Ez dakit zu batzokixan edo...
- Batzokixan? Nere aiztak kastigauta izan zian, batzokixan topau zebelako listia. “Algo... Afiliadas y una de ellas una de las principales”, Rosario. Haura egon zan gero kastigauta gerra denporan uniformiak-eta garbitzen, soldauenak. Kastigauta. Han, Angiozar bidian ipini... zeuan deposito bat eta […]. Haura gaixotu hantxe in zan, e! Neretako nere aiztia hantxe gaixotu zan. Etortzen zan zorriz jositta, zikinkerixia... bueno, jateko gogorik be ez zeban eukitzen. Hori uff...! Haura izan zan tristia e! gerra aurretik, hori gerria hasi zanerako.
- Gerria e... gerria hasi aurretik, za akordatzen za Republikia etorri zanekua?
- Haura ez naiz ondo gogoratzen, harekin ez naiz gogoratzen.
- Umia izango ziñan.
- Umia izango nintzan, klaro.
- Baiña batzokira jungo ziñan zu be?
- Honbre, klaro, jaixak zeren guztian. Baiña nere aiztak zeren listan, “como directiva o lo que sea”, bai. Eta zaharrena horretxeatik izan zan kastigadia, oso kastigadia. Etorri zian etxera reketiak Franzia... Naparruatik etorritta zeren. Gero oso lagun ein zan bat etxekua, oso etxeko, ta gero gaiñera

etxian egon zan, aiztianian, habitaziñua hartu eta hantxe egon zan. Reyes Roco, bai. Harek etortzen zien eta kendu zoskuen orduan zeren elementu danak: “máquina de escribir, televisión”... telebisiñoik ez zeukoun, radixua, eta dauzkagun danak. Eta aitta urten zan eskillaretara eta esan zotsen: “les advierto a ustedes que esos elementos que llevan ustedes no son de mis hijas eh, son míos eh. Se llevan ustedes...”. Eta gero hemen egon zan comandante Liso, comandante Liso, puff... gaiztuaua! Baiña akordau zanian aitta juzgauan zeuala, jun zan juzgaura eta esan zotsan: “Antonio, baje usted allí”. Monzongo etxian laga zittuen traste danak harrapautakuak, eta “Pase usted allí y elija el que quiera”. “No. Si me devuelve usted lo mío sí, pero los otros tienen su amo, así que yo no quiero nada”. Eta ezebe barik geldittu giñan. Baiña aittak adbertiduta e, eruaten zebena ez zala alabena, berana zala. Baiña hala ta guzti be eruan in zeben.
- Eta gero berriz bueltan ekarri zeban ala ez?
- Bapez! Bapez gero. Ezebe barik. Eta, gaiñera, ipiñi zoskun kuotia. Zela ipintzen zeben? “Donativo”. Donatibo moduan, eta multia zan e!
- Klaro...
- Baiña “un donativo”.
- “Para el patrimonio nacional” edo, ez?
- “Para el patrimonio nacional”, klaro, “donativo”. Aittak esan zeban: “ Donativo? kastigauta gare pagatzen eta donativo?”. Bai, bai.
- Zure aiztak ze zian Emakumetakuak?
- Bi zaharrenak bai.
- Emakume Abertzale Batzakuak?
- Bai, hori da. Ta bat zeuan juntan, gaiñera, haura, kastigauta izan dana. Bueno, baiña oso kastigauta egon zan e! Etxetik be ez zeban urtetzen koittauak bildurrakin. Gaiñera, esan zoskuen denunziau zoskuela etxekuak, e. Familixakuak denunziau [zebela], zeaittik eze... bueno, harrapau in zittuen papelak aiuntamentu... zerian, batzokixan, sartu zienian hartu in zittuen papelak, bai, baiña gehixenak be etxeko familixakuak denunziau zebela.

## 10. EAB eta pospolinak

- **Erref**: BER-326/014
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:17:34. **Bukatu**: 00:20:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

**Laburpena**:
Emakume Abertzale Batzan ahizpek egiten zutena: umeendako arropatxoa, "kanastillak". Felisa ahizpak egiten zuen antzerkia, Bilbora ezkondu zenak. Emakumetan asko ziren. Bera joaten zen antzezlanak ikustera, baita meriendatzera ere. Pospolinetakoa zen. Beasainen harrika egin zieten, dantzara joan ziren batean. Moisesek erakusten zien dantzan. Mutilei Luis Oñatek.

**Transkripzioa**
- Ta ze itten zeben hor Emakumetan? Teatrua ta...
- Teatrua be bai, eta lanak, umiendako lanak, jersetxuak eta lanak itten

zittuen. Klaro. Gurian aiztiak in zittuan mordua umiendako ekipuak: jersetxua... kanastillak eta horrek, bai. Haura izan zan [kastigadiena] bera.
- Eta teatrua itten zeben?
- Baitta, baitta. Hori Bilbora ezkondu zanak itten zeban gehixau, Felisak. Bai, bai...
- Eta ze emakume ibiltten zien orduan han Emakumetan?
- Bueno... Mordua zien. Hamen gehixenak zien emakumiak Batzokikuak e? Emakumiak.
- Akordatzen zara zein zan, ba, presidentia edo?
- Ez, horrekin ez naiz gogoratzen, ni txikixa nitzan artian ta. Bueno, gaztia, gaztia.
- Izenak bai? Izenak bai, zeintzuk zien e...?
- Hildda dare gehixenak.
- Amenabartarrak eta, ezta?
- Juli, Juli ta horrek izan zien, Juli eta Maria Luisa ta... Baiña ez naiz gogoratzen apelliduekin ya. Mordua zien e, mordua.
- Zu juten ziñan teatruak ikustera?
- Hoixe! Eta meriendatzera be bai.
- Ta pospoliñetakua.
- Dantzara jun giñen Donostira, ta Beasaiñen harrika in zoskuen pasaizuan. Bai...
- Zeba?
- Ba, abertzaliak giñalako. Han Beasainñen, reketiak ziazen. Reketiak edo... oso nazionalak zeren asko. Harrika baiña zela...! Bai. Ondioko puntuan kendu doste neri erretrato harek. Dantzarixak izan giñan, dantzarixak. Bai...
- Orduan, zu be pospoliñetakua?
- Pospoliña.
- Ta zeiñek erakusten zeban dantza itten ta?
- Hori hil zan. Hamen Algodoneran bizi zan. Zela zaukan harek izena...? Gero Angiozarren bizi izan zien. Ez naiz gogoratzen e. Oinddiokan puntu arte nekixen [gaiñera] izena ta... Gizakume bat zan. Ta neure lehengusu bat be bai gero e... Errenterixara juan zan bizitzera. Oñate, Luis Oñate. Harek be, harek erakusten zeban, mutillei, ta guri bestiak, Moisesek erakusten zoskun guri, neskei, pospoliñetan. Guk eskursiño asko in dittugu Donostiara ta. Baiña esaten dotsut, Beasaiñen harrika.
- Beste batek esan zoskun Tolosan in zotsela...
- Guri Beasaiñen.
- Zuei Beasaiñen.
- Guri Beasaiñen, pasaizuan.
- Pasaizuan.
- Bai, ta orduantxe zeuan...
- [...] San Martin, San Martin de Agirre ta e... Loinaz ta kontuagatik edo...?
- Ez, ez, ez... dantzarixak giñalako, euskaldunak giñalako, dantzarixak giñalako. Bazekixen bi autobus pasau bihar giñala ta gertu zeren harrixekin. Orduan, gaiñera, nere aiztia ya ezkonduta zeuan zaharrena, Pairosekin ezkondu zana, eta haura zan Donostian egun batzuk pasatzen gizonakin ta berak ikusi giñuzen dantzarixekin. Bai. Txikixak giñan artian, klaro. Pospoliñak.

## 11. Pospolinetako dantzak

- **Erref**: BER-326/016
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:21:06. **Bukatu**: 00:22:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena**:
Pospolinetan dantza egiten zuten, kantatu ez. Soltean eta zinta dantza. Mordoa ziren. Neskak eta mutilek aparte egiten zuten dantza.

**Transkripzioa**
- Orduan e...
- Txalo asko batu giñuzen. Dantzan in... dantzarixak ondo inda.
- Gaiñera, pospoliñetan dantza bakarrik ez, kantau be itten ziñuten, ez?
- Guk ez, guk dantzan bakarrik e.
- Zuek dantzan?
- Bai. Zintako hori, [koruia] itten dana, hori, ta gero sueltokuak. Gu dantzarixak giñan. Gehixenak nere lagunak orduan egon giñanak pospoliñetan hildda dare, gehixenak.
- Asko ziñaten?
- Mordua, buf...
- Ze izango zan Aberri Egunen bat-edo?
- Ez, beste egun bat zan. Bai, bestela euki zeben euskerazko... euskerazko jai bat, bai...
- Orduan neska ta mutil?
- Neska ta mutil. Aparte itten giñuan dantzak e! Mutillak mutillekin ta neskak neskekin. Danak apartauta genden.
- Orduan apartauta mutillak eta neskak alde danetan, ez? Eskolan ta..
- Bai... Bai... Bai... Hori danian, danian. Dana apartauta.
- Eskolatik kanpora be bai...
- Orduan ez zeuan holako [....].

## 12. Ikastolan, Mari 'Txantxote'rekin

- **Erref**: BER-326/017
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:25:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

**Laburpena**:
Mari Txantxote bere andereñoa izan zen, ikastolan. Kasinoa zegoen lekuan. Aparteko eskolak ziren, mojetatik kanpokoak. Uste du tituluduna zela. Dena euskaraz ematen zuen bakarra zen. Han neska-mutikoak zeuden. Batzokikoak eta bestelakoak, 30etik gora ziren. Irakurtzen eta idazten ikasten zuten. Xabiertxo liburua zuten. Debaldekoa zen, euskara ondo ikasteko. Txantxote jatorra zela dio, baina gogorra izan beste erremediorik ez zuela, hainbeste umerekin. Gela asko zeuden, eta handiena hartu zuten. Lau-bost urte egin zituen hara joaten, gerra hasi zen arte.

## 13. Ahizpa frontera bidaltzearekin mehatxatuta

- **Erref**: BER-326/018
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:25:54. **Bukatu**: 00:27:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

**Laburpena**:
Ahizpa zaharrena mehatxatu egin zuten, frontera bidaltzearekin. Anaia italiarrek harrapatu zuten Santurtzin; bisitan joan ziren. Bergaran ez zieten emakumeei ilerik moztu, Oñatin bai. Ahizpa gaixotu egin zen, eta ez zen berdina izan.

**Transkripzioa**
- Esan dozu, gerria etorri zanian, aiztak, aizta zarrena batez be, kastigau in zebela.
- Haura kastigauta izan zan, oso kastigauta. Erok zela esaten zotsen hari? Ba izango balitz komisiño bat, erropa zikiñak garbitzera ta kastigauta joan zan, eta gaiñera amenazau in zeben... Hemen frentia itxi zan Angiozarren, Angiozar-Elgeta bittartian. Gurian anaia erekin juan zan aurrera. Juan zan, baiña gero zerian harrapau zeben, Santurzen, ta Santurzen eskerrak Italianuak harrapu zebena, ze Espaiñolak harrapau balebe garbitzen dabe, baiña Italianuak harrapau zeben ta gu jun giñan bisitatzera. Orduan ez zauen ez autobusik, ez [ezebe] ibiltzeko moduan, kamiño danak eta apurtuta. Ta Aureakin, beste aiztiakin, juan nitzan ni bisitatzera ta esaten zoskuen: "Gracias que está con los Italianos, le dejarán estar con él" eta bazkaltzera gurekin eruan giñuan. Haura kastigauta egon zan, preso, bai... Aurrera jo zeben dt ‘los rojos’, gu giñan ‘los rojos’. Oin ‘los rojos’ die... jugadoriak.
- `La roja´, bai. Ta hemen emakume batzui ilia moztu be in zotsen.
- Hori Oñatin, hemen Bergaran ez.
- Hemen Bergaran ez?
- Guria amenazauta egon zan, ilia mozteko, ta plazara etaratzen zittuen, gaiñera. Hori Oñatin in zeben, Bergaran ez, Bergaran iñoi ez zotsen kendu ileik, ez.
-Ta plazara etara zittuen?
- Hori Oñatin, Oñatin, Bergaran ez. Bergaran kastigauta horrutz... zentro... frento... frentera, ‘carne de cañón’.
- Ta esan dozu hori ezta, amenazau zittuela frentera eruango zittuela.
- Bai gurian holaxe esan zotsen ‘que le iban a llevar al frente’. Guria gaixotu in zan, orduaintxe gaixotu zan, harrezkero behin be ez zan ibili ondo. Han etortzen zan ez jateko gogo barik, eta eze barik, han zikinkerixa artian erropa zikin danekin dana zorrixekin ta danakin ta etortzen zan, bueno nazkauta kotxaua. Ta harrapau zittun hori, listak, zeintzuk zien direktibakuak eta zeintzuk zian ba... ta guriak egongo zian aurrian, klaro.

## 14. Gerra garaian, enseñanza itxita

- **Erref**: BER-326/019
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:27:56. **Bukatu**: 00:31:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

**Laburpena**:
Enseñanza ikastetxea itxi egin zuten gerra hasi zenean. Kapoko ikasleak etxera bueltatu ziren: Donostiara, Bartzelonara, Madrilera... Lonarbide bakarrik geratu zen; Bergaran bizi zen, parean, eta ez zen etxera joan. Moja euskaldunak bazeuden; Oñatikoa eta Beasaingoa. Baina ez zuten euskaraz erakusten. Frantsesa eta alemana aparte ikasten ziren, hantxe bertan. Euskarazko izenak zeuzkatenei aldatu egiten zizkieten. Berari Isabel deitzen deitzen zioten. Garai bateko nortasun agiria aipatzen du.

## 15. Alderdien egoitzak, gerra aurretik

- **Erref**: BER-326/020
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:31:07. **Bukatu**: 00:32:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

**Laburpena**:
Batzokia itxi egin zuten, eta hustu. "Círculo Carlista" parean zegoen, baina ez zen sekula han egon; han ez ei zuten antzerkirik eta dantzarik egiten. Barrenkalean zegoen zentro errepublikarra. Karlistekin ez zuten harreman handirik.

**Transkripzioa**
- Lehen esan dou, batzokixa gerria hasittakuan itxi…
- Itxi in zan, itxi in zan.
- … itxi in zeben.
- A! Itxi in zeben, dana apurtu zeben ta! Barruan zeren trasto danak kendu in zittuen eta haura itxi in zan, zihero. Bai.
- Eta gerra aurretik Zirkulo karlistia ta…
- Bazeuan! Onduan, gaiñera! Batzokixa eta Zirkulo karlista bixak pegante zeren.
- Juten ziñaten zuek hara?
- Ni behin bez. Nere lehengusua bai, bertakua zalako, karlistia zan ta.
- Ta han teatrorik-eta eitten zeben?
- Harek ez, harek ezebez, bakarrik juntau itten zien, eren gauzak kontatzeko, baiña [beste]...
- Ta dantza ta be ez?
- Ezebez.
- Ez?
- Ezebez. Batzokixan bai, batzokixan danerakua.
- Eta gero, Zentro republikanua ta...
- Hori, republikanua, nik gutxi ezautu neban e. Haura behian egon zan, plazatik… Barrenkalen. Baiña harutz ez nitzan aillegatzen.
- Eta “Casa del pueblo”...
- “Casa del pueblo” ez, ez. Bakarrik republikanuena, bai.
- Zuk bazeukozun relaziñorik republikanuekin ta…?
- Bapez. Ez zeukoun, ez zeukoun, ez.
-Ta karlistekin?

- Gutxi, gutxiao ondiokan! Gutxiau oindiokan. Onduan genden baiña ez giñan alkartzen.

## 16. Gerra sasoian ez zuten ihes egin

- **Erref**: BER-326/021
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:32:29. **Bukatu**: 00:34:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Gerra etortzean ez ziren inora joan. Anaia joan zen, emaztea eta bi umeak utzita. Algodoneran emakume bat hil zen, bonbak jota. Beraien etxea ere zulatuta geratu zen. Aitak Uzarragara (Antzuola) eramaten zituen egunez. Rosario eta Aurea, bi ahizpak zigortu zituzten, baina Rosario gehiago. Egun osoa edukitzen zuten arropa garbitzen. Trini Agirrebeña ere zigortu zuten. Zortzi edo bederatzi emakume eraman zituzten.

## 17. Soldaduak etxeetan

- **Erref**: BER-326/022
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:34:42. **Bukatu**: 00:36:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

**Laburpena**:
Enseñanza zabaldu zutenean hara bueltatu zen. Soldaduak hartu behar izan zituzten etxean. Luisa ahizparen etxean bi egon ziren, eta bat lagun egin zuten. Asko gogoz kontra eramaten zituzten soldadu.

**Transkripzioa**
- Eta gerra garaixan zuk ze itten ziñuan hemen?
- Nik ezebez, eskolan ibili, eskolan.
- Eskolia gero martxan ipini zeben berriz?
- Bai, bai. Mojetakua ya zabaldu zan gero gerria akabau zan momentuan atzera hasi zan mojetakua dana, bai.
- Hona nazionalak sartutakuan ya zabaldu ingo zeben.
- Zabaldu zan dana, bai. Orduan ya normalian ipiñi zeben.
- Orduan jarraittu ziñuan zuk…
- Bai, dana igual estudixatzen.
- [Ikasten] mekanografia ta…
- Hori da. Dana, dana.
- Eta bittartian soldauak Bergaran, ezta? Esan nahi dot…
- […] zeren! Gurian aiztiei, esaten dotsut, Luisa, ezkondu zana […kin], haura euki [zittuan] zertuta, zela esaten zeben? rekisauta, bi habitaziño soldauendako. Bai.
- Derrior hartu bihar etxian.
- Derrigor, derrigor. Ta batekin oso amistade haundixa in giñuan. Naparra

zan bera, oso jatorra e. Haura igual izango zan ekarri zebena harrapauta. Honbre, ni ibili nintzan gero beste bat, izan zana falangistia, Mendabiakua, eta harek esaten zeban: “No somos eh, nos han traido. No somos pero nos han traido”. Orduan hartu itten zittuen eta eruan. Honbre, nere lehengusu bat be eruan zeben frentera, soldau moduan, baiña jonandeez zien partidokuak. Baiña juan ein bihar, derrigorrian!

## 18. Gerra garaiko giroa, nazionalak sartu ostean

- **Erref**: BER-326/023
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:36:01. **Bukatu**: 00:37:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena**:
Ez da desfileekin eta kanpai jotzeekin akordatzen, baina bai besoa altxarazten zietela. Bazeuden "margaritak", baina gutxi ziren. Denak etxe barruan egoten ziren, San Antonion. Oñatin egin zituzten desfile asko. Bandera espainola jarri behar zen balkoian, baina beraiek ez zuten jarri.

## 19. Lanera motoan; gidabaimena

- **Erref**: BER-326/024
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:37:37. **Bukatu**: 00:42:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
1939an hasi zen lanean, Aretxabaletan. Hango nagusiek ehun lantegia zuten Bergaran, eta enpresa-kudeatzaile bezala eraman zuten hara. Donostian ere egin zuen lana. Motoan ibiltzen hasi zen, eta gero gidabaimena atera zuen Donostian. Hogeita gutxirekin. Ausarta zela esaten zioten. Neska bakarra zen Bergaran. Coches Villarren egon zen lanean Donostian. Aitari ematen zion soldata, eta hark paga ematen zion, libretan jartzeko. Aitari eskatu zion dirua motoa erosteko. Migel anaiak paga ematen zion, paga txikia zuelako.

**Transkripzioa**
- Ta, orduan, gero, justo esan dozu hogeta hemeretzixan gerria bukatu zanian...
- Bukatu zanian, orduantxe kolokau nitzan. Lanian hasi nitzan orduantxe Industrias Beroa-n,
Aretxabaletan. Eta gero, hango nausixak zeuken gero textillen fabrikia, erak. Zihero, este... Julio Azkargorta, Juan Mendiola, Esteban Aiastui, Pedro Garciandia, horrek zien nausixak, eta horrek hemen euki zeben telen fabrikia. Eta orduan ekarri niñuen honutz. Hemen “como gerente, como yo mando”. Bueno, arteraiñok erekin lan eindda nenguan, e! Aretxabaletan ta Donostian.

- Aretxabaletan hasi ziñanian, motorreko karneta zuk nun etara ziñuan edo zer?
- Nik ez dakit nun etara neban, baneukan behintzat eta…
- Karneta bihar zan motorrian ibiltzeko ala?
- Ez, ez, motorrian ez.
- Gero, kotxerako, ez?
- Kotxian bai, kotxerako bai. Eta esamiñak in nittuan Donostian, gaiñera! Ta aldapetan ipini ostan, eta esan notsan: “Eee.. hemen goruzko juan biharrian beheruzko noia”. Baiña lehenenguan etara neban haura be. Bai, karneta Donostian etara neban. Klaro, eske Aretxabaletatik Donostiara eruan giñuzen, zeaittik erak zeuken han be Forjas de Zubillaga eta Industrias Beroa eta Industrias […], hirurak zien batzunak, nausi batzunak. Ta harek zeuken han, itten zittuen Coches Villar, ez dakizu? Kotxetxuak umiendako ta. Haura be erena zan eta harutz eruaan giñuzen.
- Eta motorra, zure diruakin erosi ziñuan motorra?
- Motorra nik erosi neban, mobilet(e) bat. Eta gero saldu in neban, gaiñera, mutil bati San Antonion. Kendu nebanian! Haren atzetik zebillen beti motorra ta motorra, “pues ya te vendo yo”. Ez dakit kobrau be in notsan, ez dakit.
- Eta zuk irabazten ziñuan dirua…
- Aittai. Bai, baiña gero emuten zostan pagia eruateko… Caja Laboralera ez, beste Mutualidad zeuan San Pedroko eskiñan, Mutualidad. Hanguak esaten zotsan “Zelako zintxua daukazun alabia, beti ekartzen dau”. “Honbre ez! Ez daukat beste erremedixoik eta…eruan in bihar!” Aittak beitzen zeban, “Libretan ipini dozu?”, “Bai, aitta, eruan dot”.
- Eta libretia ze zeuan zure izenian ala…?
- Bai, neure izenian. Ni nausixa.
- Eta motorra erosteko aitai eskatuta?
- Aittai eskatuta, honbre, klaro. Eta anaia neukan, Migel, zuk ezautuko ziñuan Migel, juzgauan lan inddakua, akordauko za. Ba harek beti domeketan, urtetzen zanian, bazekixen aittak paga txikixa emoten zostala eta beti joten zeban aldabia: “Elixabet etorri, errekau bat daukat zuretako”. Banekixen, pagia emuteko, ze bestela es jatan aillegatzen ta! Zinera juaten banitzan, ya ez neukan beste ezetarako, eta zine barik gelditzen banitzan beste zeoze in bihar neban…
- Zuk motorra nahi ziñuan ta baliente… motorra erosi!
- Uuuu… Eta esaten zosten…
- Jendiak ze esaten zeban?

- E? Balientia nitzala. “mugulori” diar itten zosten. Aiba “mudolari”! Hori motorista oso ezaguna zan, itxuria daonez, ta beti esaten: aiba “modolori”. Gero kotxerako allegau nitzanian, kotxian.
- Baiña motorrian zu izango ziñan igual Bergaran neska bakarra…
- Bai, bakarra, bakarra, bakarra. Honbre daukat omenajia in zebanian, ipini zebena: “La primera mujer en Bergara que ha sido gerente de industria”.
- Eta motorrian ibili zan lehenengua bebai?
- Honbree! beste iñor ez zebillen, neu bakarrik.
- Karneta zenbat urtekin etara ziñuan, kotxeko karneta?
- Honbre, aurki, belaxe in [naban] e. Motorrian, ez dakit, bi edo hiru urte ingo nittuan. Aretxabaletara juaten nitzan motorrian eta gero ya kotxia erosi neban.
- Orduan, hogeta gutxikin ya karneta?
- Bai, bai, hogeta gutxikin. Donostiara eruan giñuzen Mondragokuak, Zubillagakuak eta
Aretxabaletakuak eren fabrikara harutz. Euki giñuan… este… aiuntamentuan aurrian, zela daon heladerixa bat oso famosua?

- Bai. […]
- Gero plaza Sarriegira edo sartzeko, ba, hantxe euki giñuan ofizinak. Bai, bai. Eta harutz juan giñanian ya orduan ya kotxia neukan, e.
- Eta kotxia, kotxeko karneta etara ziñuanian...?
- Donostian esamiñak eindda.
- ... neska gehixau bazeuan karneta etaratzeko?
- Ez, iñobez, neu bakarra.
- Ta Bergaran igual zu izango ziñan bakarra...
- Bai, egongo zien igual emakumen bat e, baiña ez naiz gogoratzen.
- Lehenengotakua behintzat.
- Bakarra, bai. Espabilada, demasiau espabilada. […] moztu ta gero... zartadia!

## 20. Aretxabaletako lan baldintzak

- **Erref**: BER-326/025
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:42:32. **Bukatu**: 00:44:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena**:
Aretxabaletan Edurne Peña aretxabaletarrarekin zebilen lanean. Lau bat urte egin zituen han. Bulegoko denak joan ziren Donostiara gero. Ordutegia: 09:00-12:30 eta 14:30-19:00. Etxera joaten zen bazkaltzera, motoan. Hamabost eguneko oporrak zituzten, eta gainerako langileek zortzi.

## 21. Bergara textila itxi zutenekoa

- **Erref**: BER-326/027
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:45:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

**Laburpena**:
Gutxi kobratzen zuten. Textila itxi zutenean ere ez zuen ia ezer jaso; "prestacion graciable" kobratzen egin zituen zazpi hilabete, diru gutxirekin. Zuzendaritzako hirurak indemnizazio gabe geratu ziren; langileek bai, kobratu zuten. Langile gehienak beste toki batzuetan kolokatu zituen: Algodoneran, Movillasenean...

## 22. Lan baldintzak: emakumeek gutxiago kobratu

- **Erref**: BER-326/028
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:45:40. **Bukatu**: 00:49:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Ez du gogoan bere lehen soldata, baina txikia zen. Berdin kobratzen zuten mutilek eta neskek. Bi mutil eta lau neska zeuden. Legeak gaizki ipinita zeudela dio; langileek ez zuten irabazten zutena kotizatzen. Berak aurre egin zion zuzendaritzari, hori jartzeko. Tailerrean emakumeek eta gizonezkoek ez zuten berdina kobratzen; emakumeek gutxiago, baina bulegoan ez. Bera kudeatzaile lanetan hasi zenerako, 1945 ingururako, berdin irabazten zuten. Grebak, langileek Labe Garaietan bezala kobratu nahi zutelako.

## 23. Takigrafia eta telefonistak

- **Erref**: BER-326/029
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:49:35. **Bukatu**: 00:52:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena**:
Takimekanografa moduan hasi zen Aretxabaletan. Takigrafia asko erabiltzen zen apunteak hartzeko. Aurikularrak erabiltzen zituen. Konferentziak, telefono bidez. Bergarako telefonistak, frontoirako bidean zegoen bulegoa; hiru emakume egoten ziren. Kontuak ere eramaten zituen.

## 24. Bulegokoak Zaragozara oporretara

- **Erref**: BER-326/030
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:52:20. **Bukatu**: 00:55:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Oporrak

**Laburpena**:
Aretxabaletan zegoela, Zaragozara joan zen oporretan. Hango giroa oso bestelakoa zen, sala de fiestas zeuden. Bergaran artean ez; azkenengo pieza baino lehenago etxera joan behar, aita zain zuelako. Bulegoko hiru lagun joan ziren, Cristina Peña eta Manolita Fernandez bergararra. Oso espabilatuak zirela dio. Trenez joan ziren, eta hotelean egon. Bakarrak izango ziren Bergaran. Geroago, Benidormera eta Galiziara ere joan ziren.

## 25. Paseatu eta dantza, baina tabernetara ez

- **Erref**: BER-326/031
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:55:53. **Bukatu**: 00:56:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Igandetan dantzara joaten ziren, baina azkenengo pieza hasten zenean etxera. Helduta dantza egiten berandu ikasi zuten. Ez ziren tabernetara joaten. Paseatu eta dantza.

**Transkripzioa**
- Orduan, hemen, irtetzen ziñan zu domeketan eta...?
- Domeketan, domeketan. Baiña, esaten dot, azkenengo piezia jo baiño lehenau etxera e! Hamabixak izaten zien azkenengo piezia joteko ta ordurako, azkenengo piezia hasten zanian, etxera.
- Hemen dantzara eta, bai?
- Honbre! Eta plazan! Ta, ba, ba, hombre, agarraua.
- Bai, klar. Baiña batzuk esaten zeben ez zala komeni arrimatzia, ez zala asko komeni eta...
- Ez, honbre, oso berandu arte ez giñuan ikasi hori, oso beranduan.
- Baiña orduan tabernetara-ta emakumia ez...
- Ez giñan juaten.
- Ez ziñan juaten.
- Keba! oingo moduan? pentsau bez! oin pintxo-pote ta oin horrek dare. Horrek oinguak die, lehen ez zauan holakoik, ezta pentsau bez!
- Orduan, emakumia tabernara ez?
- Keba!
- Paseau eta gero dantza?
- Paseo ta dantzan, plazan edo Espoloian ta kitto, se akabo!

## 26. Mutil-laguna utzi zuen, aita zaintzeko

- **Erref**: BER-326/032
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:56:55. **Bukatu**: 00:59:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Madrilgo kimikari batekin ibili zen urte askoan. Etxean bera zen irabazten zegoen bakarra, eta aita edadetua zen. Utzi egin zuen, pena handiz. Eskutitzak idazten zizkion. Ramon Pez Ibarzabal zen. Hark Madrilen zeukan lana.

## 27. Debekatutako filmak eta eskote 'eskandalosoak'

- **Erref**: BER-326/033
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:59:35. **Bukatu**: 01:03:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena**:
Zinemara joaten ziren. Anaiak paga ematen zion, aitak emandakoarekin ez zitzaion-eta iristen. Debekatutako pelikulak. Aitaren baimen gabe joan zen batera. Sanmartzial egun batean aitak esan zion 'eskandalosa' zihoala, soinekoan eskote pixka bat zeukalako. Orain, berriz, dena bistan eramaten dutela dio. Emakumeek ez zuten erretzen; ezkontzaren batean igual, baina gutxi. "Abellanak" erosten zituzten. Gizon bat egoten zen kalean, gozokiak saltzen; limoi ura saltzen zuen sanmartzialetan. Barkileroak eta izozki saltzaileak.

## 28. Arrain saltzaileak eta koltxonerak

- **Erref**: BER-326/034
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 01:03:14. **Bukatu**: 01:05:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena**:
Arrain saltzaileak San Antoniora ere joaten ziren; Bergaran bertan bizi ziren. Koltxonerak; frontoian zegoen bat. Bi ezagutu zituen, baina ez du izenik gogoratzen. Labaderoan bakoitzak berea garbitzen zuen, ez beste inorentzat. San Antonion labaderoa non zegoen, orain kapila dagoen tokian; Aurea ahizpa joaten zen. Beste batzuk errekara joaten ziren.

## 29. Umetako eta gaztetako bainuak eta jolasak

- **Erref**: BER-326/035
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:05:23. **Bukatu**: 01:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

**Laburpena**:
Umetako bainuak errekan. Presan salto ere egiten zuten, Martokuako bidean. Ikasi zuen igerian. Mutilak asko ziren, baina neskak gutxi. Bainujantzirik ez zuten, eta soinekoekin. Debara joaten hasi zirenean erosi zuten bainujantzia. Frontoira joaten ziren kaletarren kontra gerra egitera. San Antonion ez daki askatasun gehiago zuten, baina ausartagoak zirela uste du. Kaleko neska askori utzi ere ez zieten egingo gurasoek. San Antonion gorri fama zuten. Don Serafin apaizaren kontuak.

## 30. Donostian Bergaran baino libreago

- **Erref**: BER-327/002
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:00:44. **Bukatu**: 00:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Aretxabaletatik Donostiara eraman zuten lanera. Carrocerias Villar. Haur kotxetxoak egiten zituzten, aberatsentzat. Inude asko zegoen Donostian. Maisu baten etxean egon zen apopilo, beste bi neskarekin batera. Hantxe pasatzen zuen astea. Asteburuan, Bergarara trenez. Bulegoko lagunekin irteten zen. Bergarar bakarra zen bulegoan (bestea Gasteizera ezkondu zen). Bulegokoekin irteten zen, kafetegira. Bergaran baino askeagoa zen. Hala ere, ez ziren tabernetan sartzen. Donostiako soinekoek eskote handiagoa zuten.

## 31. Kafetegira eta hondartzara, Donostian

- **Erref**: BER-327/004
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:03:48. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Bergarako neskek dotore fama zuten. Donostian antzeko orrazkerak ikusten ziren eta antzeko estiloa. Diferentzia handiena irteerak zirela dio. Bergaran ez zen artean emakumerik ikusten kafetegietan. Hondartzara ere joaten zen, Kontxara. Gustura egon zen, baina beti etxera bueltatzeko gogoz. Etxeko andreak kontrolatu egiten zituen, alaba (adin berekoa) beraiekin ateratzen zelako.

## 32. Kudeatzaile lanetan, urte gogorrak ere bai

- **Erref**: BER-327/005
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:08:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Krisi industriala
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

**Laburpena**:
Donostian bulegoan egon zen lanean, kontabilitatea eramaten. Aitari galdetu zioten ea Bergarara joango zen lanera, eta hark esan zien berari galdetzeko. Enpresa kudeatzaile lanak: langileak hartu, bidali... Azkoitira joaten zen sarri,

Epelde y Larrañagara. Urte txarrak ere izan zituzten, kredituak ordaindu ezinda. Bankuekin zituzten zor denak kitatu zituen, makina batzuk salduta. Lantegi askotan bankuei zorrak ordaindu gabe geratu zirela dio, dirua eduki arren. Zazpi hilabete kosta zitzaion zegokion pentsioa kobratzea, adina baino urtebete lehenago itxi zelako lantegia. Nagusiak ez ziren familiakoak; haien izen-abizenak esaten ditu, eta zituzten lantegi batzuen izenak.

## 33. Bergara Textileko langileak; prozesuak

- **Erref**: BER-327/006
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:08:44. **Bukatu**: 00:12:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

**Laburpena**:
Bera kudeatzaile lanetan hasi zenean, Bergara Textilen 30 langile zeuden. Gehienak gizonak ziren. Tejedurian emakumeak ere bazeuden; hasieran makina bat eramaten zuen bakoitzak, baina gero lau. Prozesua osorik egiten zen. Tintea uraren kalitatearengatik zen ona. Armadarako saltzen zuten asko. Madrilen, Bartzelonan eta Valladoliden ordezkariak zituzten. Tindategian dena gizonezkoak ziren, lan gogorragoa zelako. Emakumeak ez zituzten horretarako gai ikusten. Aurrerapenak. Lantegia non zegoen.

## 34. Emakume ezkonduak eta amak lantegietan

- **Erref**: BER-327/007
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:12:37. **Bukatu**: 00:15:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

**Laburpena**:
Ezkongabeak gehiago, baina emakume ezkonduak ere bazebiltzan Bergara Textilen lanean, bizitza dena han eman zutenak. Berak dioenez, gehienek lanean jarraitzen zuten ezkondu eta gero ere. Beste leku batzuetan bai, beraienean ez. Umeei titia emateko gela bat zuten. Umea izatean ba omen zuten eskubidea baja hartzeko, baina kobratu gabe, eta gehienek nahiago izaten zuten lanean jarraitzea. Ama batzuek ordu gutxiago egiten zuten lana (eta kobratu ere gutxiago). Emakumeek etxeko lanak ere egin behar, lanetik bueltan, laguntzeko norbait ez bazuten. Ama edo. Oraingo amonek ere zaintzen dituzte umeak. Algodoneran ama eta amona, sarri biak zebiltzan lanean. Etxeko norbaitek eramaten zuen umea lantegira, eta berriz buelta etxera. Orain hobeto bizi garela dio. Beraiek oporretan aprobetxatu behar izaten zutela urte guztikoa.

## 35. Gizonak hobeto bizi ziren emakumeak baino

- **Erref**: BER-327/008
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:15:54. **Bukatu**: 00:17:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Gizonak hobeto bizi ziren emakumeak baino (eta orain ere bai). Nahi zutena egiten zuten. Txikiteoa egiten zuten lanetik etxerako bidean. Emakumea, berriz, beti etxean; gizona zetorrenerako dena gertu izan behar zuen. Orain emakumeak askatasun gehiegi hartu duela uste du.

## 36. Lantegiko emakumeak finak lanean

- **Erref**: BER-327/011
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:21:16. **Bukatu**: 00:24:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Aitzindaria izan zen: enpresa kudeatzaile moduan, baita motorrean ibiltzen ere. Dirua lortu zuenean autoa erosi zuen. Sinca 1000 urdina eduki zuen. Enpresa kudeatzaile lana ez zen erraza. Denak ez ziren langile finak. Kontxi Ilarduia adibidez bai, oso ona zen lanean, beti zegoen gertu laguntzeko. Berak bi emakume hartu zituen bulegoan eta bere iloba ere bai, Jose Antonio. Bi gizon zeuden bulegoan. Emakumeek gizakumeek baino errendimendu hobea zutela dio, bai bulegoan bai tailerrean.

## 37. Lan berdinagatik gutxiago kobratu

- **Erref**: BER-327/013
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:25:09. **Bukatu**: 00:26:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Enpresa kudeatzaile moduan zituen eskubideak aipatzen ditu: langileak hartu, bota, gauzak erosi, saldu... Emakumea izateagatik gutxiago kobratzen zuela uste du. Orain ere gertatzen dela dio, lan berdina eginda gutxiago kobratzea.

## 38. Langileek egin zuten greba

- **Erref**: BER-327/014
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:26:09. **Bukatu**: 00:28:09

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Krisi industriala

**Laburpena**:
Greba egin zuten langileek. Labe Garaietan bezala kobratu nahi zuten. Bera lanean hasi eta gutxira izan zen greba. Bulegora joaten ziren eskabideekin, baina ezin zieten eman. Zorrak zituzten bankuekin. Sindikatuek artean ez zuten indarrik. Greba egun osokoa izan zen.

## 39. Bere ama, emagin lanetan ibilia

- **Erref**: BER-327/016
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:28:29. **Bukatu**: 00:30:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

**Laburpena**:
Bera etxean jaioa da. Bere ama, Juana Arrese, emagin lanetan ibiltzen zen. Koinata zaintzera joan, kutsatu eta halaxe hil zen. Inprentako Garbiñe bere amarekin jaio zen, bera jaio baino geun bat lehenago. Ez du beste emaginik ezagutu San Antonion. Mikaela gero, baina tituluarekin. Normalean medikuarekin joaten ziren emaginak.

**Transkripzioa**
- Zu etxian jaioko ziñan, klaro. Esaten dot... zu jaio etxian, etxian jaiotakua zara.
- A bai bai bai, etxian jaiotakua, bai.
- Eta badakizu zeiñekin? ze komadrona edo?
- Ama juaten zan komadrona ta nik pentsatzen dot beste lagunen bat eukiko zebala. Ez dakit zeiñekin. Don Roman orduan guk medikua zeukoun Don Roman Oiarzabal.
- Ta ama, ama ibiltzen zan, e?
- Komadrona askotara juan zan. Haura kontajiau ein zan holaxe. Koiñata bat gaixorik zeuala juan zan, ta bera kontajiau ta bera hil ta koiñatia osatu. Bai.
- Ta zelan zeukan izena zure amak?
- Juana. Juana.
- Juana.
- Ta apellidua?
- Arrese. Juana Arrese.
- Juana Arrese.
- Bai.
- Eta bera komadrona ibiltzen zan orduan.
- Bai, ibili zan. Hombre, Markoneko hemen frentian eon zan ba? hango Garbiñe gero Bitorixara ezkondu zana, berak jaio zeban ta handik egun batera ni jaio nitzan. [Haxe], egun baten diferentzia zeukan ta berak antendidu zeban ama. Pentseizu, bai. Asieske danerakua euki dot etxian.
- Bai. Ta hemen zuk beste komadronaik ezautu dozu? San Antonion-edo bazeuan batenbat?

- Ez, ez dot ezautu iño bez.
- Ez?
- Iño bez.
- Gero Mikaela...
- Bueno, haura ya... hori tituladia zan, haura ya tituladia, bai.
- Bai, bai.
- Haura egon zan residentzian. Residentzian ta ospitxalen. Gure loiben umiak hantxe jaio zian, Mikaelakin, bai.
- Ta zure ama-ta, bakarrik joaten zien? edo lagunen batekin, baiña mediku barik edo medikuei laguntzera?
- Medikuakin. Medikuakin, bai.
- Medikuakin, ezta?
- Bai, komadrona, baiña medikuakin, bai.
- Medikuai laguntzera.
- Hombre, igual medikua igual zeozeatik ezin bazan aillegau, ba igual bakarrik.
- Tokauko jakuen behin baiño gehixaotan...
- Batian baiño gehixaotan egongo zan bakarrik, seguru.

## 40. Hildakoen ardura emakumeek

- **Erref**: BER-327/017
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:30:13. **Bukatu**: 00:32:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Umea jaio eta bisitan joatea: martopilak. San Antonion ere egiten zuten. Inguruko emakumeak oparitxo batekin joaten ziren, meriendatzera. Hildakoak prestatzen eta arrosarioa errezatzen ere beti emakumeak. Baita kapilan ere. Gizakumeak bitartean tabernan. Hildakoaren etxean gaua pasatzera gizakumeak ere joaten ziren. Bera askotan joaten zen elizan arrosarioa errezatzera auzoko norbait hiltzen zenean; senide eta lagunak izaten ziren.

**Transkripzioa**
- Hemen bazeguan ohitturaik ume bat jaiotzen zanian inguruko andrak bisitan juteko?
- Bai, hori bai, hori bai.
- Hori zuk ezagutu dozu?
- Bai, bai.
- Martopillak edo zelan esaten jakuen?
- Martopillak esaten zeben, bai, bai.
- Eitten zan hamen kalian be eitten zan?
- Bai, bai, bai. Kalian be eitten zan, bai, bai, hori kalian be bai. Hemen ingurukuak danak joaten zien, beran presentia eittera.
- Zer izaten zan meriendia?
- Bai, umia euki zebanak meriendia emun eta bestiak zeoze eruan.
- Baiña hori andran kontua izaten zan, ez?
- Dana andrak, danak, danak emakumiak, bai.
- Eta gero, jendia hiltzen zanian be, andrak ibiltzen zian errosarixua errezau ta hildakua preparau ta...

- Ni joanda nao hemengo parian hil zanian Jesus Egaña, neuk errezau neban hor erresarixua, bai. Diar ein zostan andriak, esan zostan Luisitak "Etorriko zara Elixabet errezatzera?" ta "Bai, juango naiz". Eta kapillan be bai, San Antonion. Barrixuan hiltzen zanian bateon bat, kapillan beti eitten giñuan erresarixua. Eta nik errezau izan dot askotan errosarixua.
- Hori be andren...
- Andren kontua zan hori be bai, [ederra], bai. Gizakumiak iñobe ez zan etortzen, gaiñera erresarixua be bai...
- Ez?
- Harek tabernara.
- Ta hildakua preparau eta...
- Bai, bai, bai. Hori gertau bai, gertau, bai.
- Eta gaba pasau eta...
- Bueno, hori gizakumiak be etortzen zien, gaba pasatzera gizakumiak be bai. Bai. Baiña zera gertatzera, erresarixua-ta errezatzera ez, gizakumiak tabernara, txikitua hartzera.
- Eta ze izaten zan? Ingurukuak? Igual hamen hil ezkero bat, ondoko…
- Ondokuak, bai, ondokuak.
- … ondoko etxekuak, gertukuak, lagunak eta?
- Hemen Larrazanekua hil zanian be, Jesusita, egun hartan gaixorik zeguan. Bueno, makalik. Neuk esan notsan, gaiñera, urten nitzanian –erresarixua errezatzera juan bihar neban, beste bat hil zan barrixuan ta, eta esan notsan–: “Jesusita, menos cuento, mañana en la cocina, eh”. Eta erresaixotik bueltau nitzanian, aiztiak esan ostan: "Diar ein dotsu Pilik","Zer?" ta "Jesusita hil dala", ta berakin orduaintxe esan notsan “menos cuento y mañana en la cocina te quiero ver”. Ta ondo laga neban, ta hil. Bai. Erresarixua errezatzera askotan juaten nintzan, e. Diar eitten zosten ta "Elisabet, errezauko dozu?", ta "Bai, bai, errezauko dot".
- Elizan be abaria, gizakumiak abare, baiña elizan bertan beti egoten ziran emakumiak, ez?
- Bai, baiña haura be Don Serafin etorritta zeguan, baiña harek emuten zeban mezia. Baiña errosarixuak-eta errezatzeko hilddakuendako emakumiak, bertan, bertako senidiak edo lagunak edo... Bai.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-10-17*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com